

Beobidek eskatzen du, Hegosa-k aditz-batuari buruz antolatutako sariketaren epea igaroa dala eta epai-mahaia Euskaltzaindiak izendatu beharra duela. Honetarako dauden 100.000,— pezetatik, 50.000,— lehen sarizat dala eta beste 50.000,— batzorde baten hartu diran lanen artean osakuntza bat egiteko. Aditz-batuaren Batzorderako izendatu den Atal Eragilea bera hautatzen da epai-mahaiko.

Ondorean, Beobide berak gogorazen du, datorren urterako ere beste 100.000,— pezetako emaitza bat egingo dutela, era berean. Idazkariak eskatzen dio, Euskaltzaindiak bere aldetik lankideak ordaindu ahal izateko dirurik ez duenez, ia zergatik ez utzi, Hegosa-ren diru hori, Aditz-batuaren Batzordearen lanak ordaintzeko. Beobidek, bero aldetik ondo ikusi du, baina Hegosa-koekin erabakitzekotan gelditu da.

X. Gereñok toki-izenen ofizialkien era jatorrezko lista bat behar dala dio. Idazkari-ordezkoak dionez, aurki argitaratuko da "Nomenclator"-a, Instituto Nacional de Estadística-k hamar urterik behin argitaratzen duena eta bera harturik, herri eta hauzo izen guztiak ekartzen dituenaz, berezi behar diren zuzenketak egitea izango dela onena. Ondo ikusi da.

Idazkariak dio, "Agur" (6 zenb.) aldizkariak *Pozak eta kezkek* izenako lan bat argitaratu duela Euskaltzaindiarentzat irainez, tartean idazkariaren izena ere era berean erabiliaz. Behar dan disziplinari eusteko, aurrerantzean abusurik izan ez dedin, sekretaritzaren izenean ofizialki erantzuteko eskubidea eskatzen du, bestela, bere izenaren honra mantentzeko partikular egitera beharturik dagoelako. Euskaltzainburu-ordezkoak dio, iraindua Euskaltzaindiaren idazkaria izan dala, eta ez pertsona partikular bat, eta Euskaltzainburuak beregain hartu behar duela "Agur" aldizkariari erantzuna ematea. Era hau ontzat hartua izan da.

Idazkari-ordezkoak, Gonzalez Ollé-k Burebari buruz argitara berri duen katalogoa Euskaltzaindiko liburutegirako komenigarria dela. Erostea erabaki da.

Aita Damaso Intza-koak aditzera ematen du, aspaldidanik egina zuela H letrari buruzko lan bat, argitasunak emanez. EUSKERA-rako egin zuela, baina denboraz argitaratuko ez zen ustean Bizkaiko beste jaun batzuei eskaini ziola, eta oraintsu *Karmel*-en argitaratua izan dela. Eta argi utzi nahi duela, lehen Euskaltzaindiak hartu zuen elabakiaren kalterik gabe, bakoitzak bere aldetik ikakurri eta kontsideratzeko dala H-ren historian.

Datorren Batzarrea, Donostian, abenduaren 30-ean izango da.

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

1970-XII-30

Iruñean, Nafarroako Museoa, 1970-eko abenduaren 30-ean, goizeko 11-etan.

Bildu dira: Luis Villasante buru, Arrue, Irigaray, Irigoyen, Satrustegi, eta Zavala euskaltzainak; Bazterretxea, Berriatua, Berrojalbiz, In-

txausti, Kintana, Gillermo Larrañaga, Lizundia eta Ruiz Urrestarazu, euskaltzain laguntzajleak, Juan San Martin idazkari dala.

A. Intza-koak eta L. Mitxelena jaunak ezin etorria adierazi dute. Ohi dan otoizarekin hasi da biltzarra.

"Institución Príncipe de Viana"-ko buru don Jose E. Uranga jaunak agurrezko hitz batzuekin eman dio ongi-etorria Euskaltzaindiari. Ondorean euskeraren zahartasunez, Espainiako hizkuntzarik zaharrena, eta ohorez mintzo da, eta bere alde "I. Príncipe de Viana"-k hartu duen lana adierazten du: Aspalditik herriz herri haur euskaldunentzat sari-
ketak jarriaz, hilero euskerazko "Príncipe de Viana" aldizkaria argitaratuaz, hizkuntza ikerketentzat "Fontes Lingvae Vasconum", eta abar. Aldizkariok, euskaltzaindikoak beren lanak argitaratu ahal izateko ide-
kiak daudela adieraziaz. Euskaltzaindjaren izenean eskerrak eman zaizkio.

Agiria onhartzean, Irigoyen jaunak dio, "La Gran Enciclopedia Vasca"-n kolaboratzeari buruz, "baten kolaborazioa" jarri dala agirian eta, berak, "batzuen kolaborazio" a esan zuela. Beraz, pluralean eta ez singularrean.

Ondoren, Irigoyen jaunak, euskaltzainburuak proposatutako "Euskaltzaindiaren egituraz"-ko txostenari zenbait ohar egin dizkio. Eta, idazkariaren huts egiteaz, zenbait batzarretan idazkari-ordeak bete duela, bokaliki gasteenak egin beharrean.

Idazkariak dio, oharrok, formazkoak direla eta ez funtsezkoak, eta agiriak argi ta garbi jarri ahal izateko, formaren aldetik, idatzitako ohar bat gertatzeko. Honetan gelditu da. Eta, idazkari-ordezkoari buruzkoan, garaia pasatu dala dio, agiriak ontzat emanak daudenez; hala ere, 1967-an, Irigoyen jaunak berak, EUSKERA-n argitaratutako agiri-pean nabari denez, gauza bera egin zuela agiria idazkari-ordezko bezala izenpetuaz.

Idazkari-ordezkoak aditzera ematen du, G. Aresti jaunak telefonoz dei egin diola, aditzera emanez, aditz batuaren batzordeko kontseilari izatea ukatzen duela.

J. Arenaza jaunaren gutuna irakurri da: Euskaltzaindiaren estruktura berriztatzeari buruz, hain garrantzi handiko gaiak diranez, bere epea eskatzen duela, hila bete gutxienez; organigrama horiek eskuratu ondoren Urtarrilera arteko epea beariko litzakeala. Beste alde batetik, idazkari-ordezkoaren iritziak gure arteko lege gizonak estudiatu.

Bizkaiko Diputazioaren gutuna, urterako laguntzaz 50.000,— peseta ematea erabagi dutela, eta beste hain beste Hiztegi lanerako. Eskerrak eman bekioz.

G. Manterola jaunak, euskaltzainburuari eta idazkariari eskerrak emanez egin dituen gutunen berri ematen da, hauek bere omenaldi bide egin zizkien zorion agurrak eskertuaz.

P. Berrondo jaunaren gutuna, Gipuzkoako ordezkariaren bulegoko ez duela jarraitzeko asmorik esanez.

Herri hizkuntzen idazkaritzaren arduradun don Frederic Roda-ren gutuna, *Symposium*-aren antolamenduz abeduen 13-an Iruñean egin zan bileraren berriak emanez. Lehendabizi, aste bukaeraz bilera txiki bat egingo dala, zenbait espezializta hortarako bereziki deituaz, eta aztertuko diren gaiak: 1) "Espainiako hizkuntzak legearen pean" (Ley de

Educación, de Prensa, de Régimen Local). Oraingo egoeran eta zelako adierazpenak egin. 2) "Espainiako hizkuntzak eta herriaren iritziak" (zer nabari den ohartu eta ekintzak eratu: iritzi hobetzeen teknikak bideratu). 1971-eko otsailaren aste bukaera batean aztertzeke, eta, gero, bertatik eratu bilera nagusia, *Symposium*-a.

Arrue jaunak dio, Ley de Educación dalakoari buruzko azterketak, legea egina denez, "Desarrollo de la ley" behar duela gaitzat, eta ez "enmiendas a realizar", Roda jaunak dion bezala, eta Ley de Régimen Local-i "enmiendas a realizar". Ondo iduritu da.

Euskal izeneri buruzko gutun bi, Donostiako Juzgadoetik, "ENEKOIZ" izenaren argitasunak eskatuaz; eta, Tolosatik "ZIGOR" izena galerazten, Euskaltzainditik bidalitako agiriak aski indar ez duelako. Baina, idazkariak dio, *Zigor* izena 1415-ean ba zala, J. C. Guerra zanak, *Oñacinos y Gamboínos, rol de bunderizos vascos* (Donostia, 1930) liburuaren 119-garren orrialdean dakarrenez. Eta *Las Bienandanzas e Fortunas*-en ere agertzen dela izen hau.

Satrustegi jaunak dio, *Antzina* izena onhartu dala Iruñean.

Euskaltzaindian salgai dauden liburuen katalogu bat egin da, eta salketarako, lehendik euskal liburuekin horretara ari dan bat eskaini da.

Uranga jaunak "Institución Príncipe de Viana"-k argitara berri duen M. H. Anglés-en *Historia de la Música Medieval en Navarra* liburu eman du Euskaltzaindiko liburutegirako. Eta J. M. Satrustegi jaunak berak euskeratu duen *Ardo ta Ogi Martxelín*, José M.^a Sánchez Silva-rena, Iruñeko Gómez argitaldaria agertua. Eskerrak eman zaizkie.

Euskaltzainburuak "Idatz arauen batzordea" proposatzen du. Honen egitekoa izango da azaleko gazetan oinharriak finkatzea, puntuazio kontua eta gainerako zenbait seinale, hitz elkartuak, eta abar euskera idatzian ahalik eta berdinen erabiltzeko. Hauek izendatuak: Pierre Lafitte, Imanol Berriatua, Salbador Garmendia eta Luis Villasante bera Egile Atal honen idazkari. Kontseilari: J. A. Alvarez Enparantza, X. Kintana, J. Etxaide, E. Erkiaga, M. Lekuona, A. Irigaray, O. Apraiz eta J. M. Satrustegi. Buru, L. Mitxelena.

Batzarrak egiteko era eta egituraren organigrama: Ideki, Euskaltzainburuak, I Otoitzarekin zabalduaz, II Eguneko gaiak irakurri; Bigarren, Agiria onhartzea; hirugarren, Idazkari nagusiak har-emanen berri; laugarren, hiru hilabetero diru kontuak ematea, Diruzainak edo bere ordezkariak; bosgarren, Eguneko gaiak. Hemen, batzorde bati dagokjon arloa denean, batzordekoek dute lehen hitza, batzorde buruagandik hasi, idazkariak jarraitu eta beste batzordekoekin segi. Gero, beste bazkideek, banan bana; seigarren, aurrez aurrez ututakoek (ahal dala idatzita). Idazkariak irakurriko ditu zeintzuk diren, gero speakerrak, ordenuari jarraituaz, hitza emango du. Bakoitzak eta batzordeak dakartenen gaien, iker txostenak preferentziadun, baina aurrez Euskaltzaindiaren etxera bidali beharko da, honek kopiak ateratzeko, batzarra baino lehen. Txostenak, erantzunez adierazpenak izaten baldin ba ditu, eta zerbait luzatu, urrengo batzarrerako utziko da, gaien sar-tuaz eta era horretara zerbait esateko dutenak epea izan dezaten.

Euskaltzainburu jauna Euskaltzaindiaren prensa bulegoaz mintzatu da, berriak ofizialki emateko. Oraingoz berak eginen du Euskaltzainburugokoen laguntzaz.

Euskaltzainburuak adierazten du, Caracas-ko Euskera Lagunen Elkartek euskal irakaskintzarako liburuentzat sari bat sortu zuela igazko urtean, "Andima Ibiñagabeitia Saria", eta Euskaltzaindiari eskaini djola bera banatzea, irabazlea Nafarroan bizi danez. Euskaltzaindiak gogo onez hartu duela ohore hau eta orain dala unea. Euskaltzaindiko zen Ibiñagabeitiaren goresmenezko hitzen ondorean aurkezten du Gillermo Larrañaga jauna, *Landare jakintza-rekin* 1.000 dolar zituen sariaren irabazlea, eta bere alde txaloak eskatuaz, Euskera Lagunen Elkartek bidali digun txekoa ematen dio. Ondorean, G. Larrañaga jaunaren eta bere lanen berri ematen du, eta euskaltzain laguntzaille izendatzea eskatzen die batzarkideeri. Ontzat hartua izan da izendapena.

Batzarkide batzuen eskariz, Burgos-en heriotzara kondenatu dituzten euskaldunen hitzitzen alde zerbait egin beharra dagoela esan da, eta Estadu-buruari telegrama egitea erabaki da, hitz hauekin: "Academia Lengua Vasca, reunida sesión académica Pamplona, suplica clemencia procesados Burgos".

Ohi dan otoitzarekin bukatu da biltzarra.

Euskaltzainburua

LUIS VILLASANTE

Idazkaria

JUAN SAN MARTIN

1971-I-29

Donostian, Gipuzkoako Diputazioan, 1971-ko urtarrilaren 29-an, goizeko hamar terdieten.

Bildu dira: Villasante buru, Haritschelhar buru-ordezko, Arrue, Di-harce, Aita Intza-koa, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Lekuona, Lojendio, Satrustegi eta Zabala euskaltzainak, Beobide, Berriatua, Berrojalbiz, Etxaniz, F. Setien, Garmendia (Jon), Garmendi (Salbador), Lekuona (Juan Maria), Lizundia eta Zatarain euskaltzain laguntzailleak, San Martin idazkari dala.

Dassance, Eppherre eta Larzabal euskaltzainak ezin etorria adierazi dute.

Ohi dan otoitzarekin hasi da biltzarra.

Agiria onhartzean, Irigoyen jaunak zenbait ohar egin ditu Euskaltzaindiaren egiturari buruz, araudien arabereaz bete ahal izateko zer behar den adieraziaz, euskaltzainburugoa eta batzordeak hornitzeko. Baita ere, dio, aldizkari batean irakurri zuela Lizundiak firmatua zela agiri bat, eta legezkoa izateko firma baten faltan dagoela. Berak idazkari-ordezko egin duenean bokalik gazteena bezala egin duela.

Idazkariak aditzera ematen dio, berak dakielarik ez dagoela agirik firma baten faltaz.

Labayen jaunak speaker premiarik eza agertzen du, eta idaz-arauen batzordean beste izen batzuk sartzea eskatzen du.

Lizundia jaunak eman dio arrapostua. Eta, izendatua dagoenean ustea erabaki da.

Ohar horien ondorean agiria ontzat hartu da.